

Udal Informazio Aldizkaria

Ezkabarte



31 Zenbakia
2010ko apirila



Argazki: Jesús Chueca

EZKABARTESTREINAN

Arre/Atarrabian zehar, errepidea NA-2517a errepidea arriskugarria zen oinezkoentzat ia kilometro batean zehar. Zati horretan kamioiek, txirringulak, oinezkoek eta autoek espaloia eta bazterbidea konpartitzen zituzten ia seinalerik gabe eta beren artean bereizketarik gabe. Mugimendu dezenteko errepide horretan, minutuko hamar ibilgailu baino gehiago ibiltzen baita, segurtasuna lehentasunezko kontua zen. **2**

Ibarreko historia bildu dute

Ezkabartek badu idatziko dion norbait. Iker Alzola arkitektoak eta José M. Pastor artista eta etnologoak ibarreko ondare arkitektoniko eta historikoa aztertu dute. Orain, Ezkabarte ibarraz duten jakintza liburu batean biltzea planteatu dute, zeinetan Aranzadi elkarteak parte hartuko baitu.

EZKABARTEMUGIMENDUAN

Arre izanen da festa ibilbidean buru maiatzaren 28an eta Zildotz hurrengoa ekainaren 18an. Bestalde, neguko pilates eta spinning jarduerak ekainean zehar luzatuko dira (joaten den jende kopurua horretarako aski bada). Jada entrenatzen hasi nahi baduzu, hilabete horretarako izen-ematea maiatzaren 3an hasi eta hil beraren 14an bukatuko da. **4**

Ezkabarte ibarreko enpresa bila dabil

Zeure burua ezagutarazi nahi baduzu, hurrengo aldizkarian egin 25 eurotik aurrera'

Telefono 948 248 324



NA-2517an oinezkoentzako pasabide bat Arre eta Atarrabia artean. / Jesús Chueca.

NA-2517rako aurpegi berria

Arre/Atarrabian zehar, errepidea NA-2517a errepidea arriskugarria zen oinezkoentzat ia kilometro batean zehar. Zati horretan kamioiek, txirrindulariek, oinezkoek eta autoek espaloia eta bazterbidea konpartitzen zituzten ia seinalerik gabe eta beren artean bereizketarik gabe. Mugimendu dezenteko errepide horretan, minutuko hamar ibilgailu baino gehiago ibiltzen baita, segurtasuna lehentasunezko kontua zen. Ezkabarteko Udalak, Nafarroako Herri Lanetako Departamentuarekin elkarlanean, zatiaren arriskugarritasuna ezabatu eta bizilagunei bi herrien artean ibiltzea errazteko plan bat abiatu zuen.



Auto, txirrindulari eta oinezkoek 100 metro baino gehiagoko zati bat konpartitzen dute. / Jesús Chueca.

Seinaleztapenarekin batera joan zen azaroaren 23an izan zen obren hasiera. Lehen urratsa, eta garrantzitsuenak, oinezkoen errepidearen ondoko pasealekurako sarbide eta bertako irteera hobetzea izan da. Horrez gain, beharrezkoa zen argiztapenaren hobekuntza eta, hortaz, Arreko Kontzejuak herriko argiak farol berriez aldatu ditu 6.000 euro baino gehiagoko aurrekontua izanik.

“Askoz hobeki dago hola, baina jarraitu behar da, gauza anitz egin daiteke”, esan du José María Gainzak, “beste farol bat jarri esaterako, ez dakit zeren zain dauden”. Farol hori jartzea hotza zela eta atzeratu behar izan zela argitu dute Udaleko iturriek. Temperatura baxuek ez zuten orduan hormigoirik jarzen uzten, hori izoztu egiten baitzen.

Herri Lanetako Departamentuari zatia edertzea dagokio, ibaiko landaretza moztuz eta zurezko barandaz paratuz.



José María Gainza ez dabil duda-mudatan bere zalantzak planteatzean. / Jesús Chueca.

EZKABARTESTREINAN

Udalaren ahalegina

Ezkabarteko Udalak, beste zenbait erakunderekin batera, Lurra zaintzeko kezka dutenekin bat egin du. Zaintza hori helburu, Udalak iazko urritik aurtengo urrira bitarteko energia plan bati heldu dio.

Energia plan horrek herritar guztiei iritsi eta mezu bakarra hedatu nahi du: iraunkortasunerantz joateko indarrak batzeko beharra. Horretarako, hainbat neurri har daiteke eta erakundeak bat aukeratu du, eraginkorra. Hau da, urte osoan zehar, energia kontsumoa iazkoarekiko %3 gutxienez murrizteko ahalegina egiten du.

Udalaren inplikazioa hainbestekoa da ezen proposaturiko helburua 2009ko azaroaren eta aurtengo abuztuaren artean erdietsi ezean datorren urtean zehar biztanleria osoari bideraturiko energia eraginkortasun eta aurrezkiari buruzko sentsibilizatzeko jarduerari ekiteko konpromisoa hartu baitu.

Frontenis lehiaketa

20 gizonetako bikote baino gehiago eta 5 emakumezko bikote hartzen ari dira parte Ezkabarte ibarrean antolatutako Frontenis txapelketan. Lehiaketa, kiroldegia hiru garren urteurrenarekin batera, otsailaren 23an hasi zen eta, 2009-2010 ikasturtearen amaierarekin batera, maiatzaren 28an bukatuko da.

Milioi bat euro baino gehiago ibarrarentzat

2010erako kontuak eginda daude jada eta 1.387.000 euroko emaitza izan dute, zein neurri handi batean langileek, ondasun eta zerbitzuek, transferentzia arruntek eta inbertsio errealek sorturiko gastuetara bideratuko baita.

Diru sarrerek oso jatorri ezberdinak dituzte, protagonismo berezia zuzeneko zergek, transferentzia arruntek eta Administrazio Orokorrak erakundeari egiten dizkion transferentziek dutela. Gogoratzekoa da aurtengo kontribuzioa bi zatitan kobratuko dela: lehen kobrantza ekainean eta bigarrena azaroan egiten dira, herri-tarrei ordainketa errazte aldera.

2009 Aurrekontuak 2009ko kontuekiko %8,7 jaitsi dira

Aurtengo guztizko aurrekontuak 131.500 euro murriztu dira, hau da, 2009ko kontuekiko %8,7ko jaitsiera gertatu da. Beherakada nagusia zuzeneko eta zeharkako zergei dagokienez diru gutxiago bildu izanaren ondorioa da. Hala ere, jaitsiera hori transferentzia arrunten eta Administrazioak egiten dituen transferentzien bitarteko diru sarrerek gehitu izanak konpentsatu du.

Kontribuzioa bi zatitan kobratuko da, ekainean eta azaroan

Iaz Udalak 252.750 euroko diru sarrera izan zuen transferentzia arrunt gisa, Ogasunetik etorrira batez ere, eta aurtengo, berriz, 284.400

eurokoa izan da diru sarrera hori. Era berean, Administrazio Orokorraren transferentziak 198.500 eurotik 279.400 eurora handitu ziren urtebetean.

Gastuen atalean ez da aldaketa nabarmenik izan. 2009ko lau diru sail handietarik bakar batek izan du ekarpena murrizturik, inbertsio errealek hain zuzen, horiek 366.600 eurotik aurtengo 254.000 eurora pasatu baitira. Gainerako diru sailek iazko banaketa orekatuari eusten diote gutxi gorabehera, kapital transferentzien diru saila desagertu dela izan ezik.


Kapital transferentziak dagokien gastu saila desagertu da

Aurtengo diru-laguntzak ez dira aurreko denboraldikoez oso bestelakoak. Onuradunik handiena Burlata/Atarrabiako Musika Eskola da, 2010erako diru-laguntza 38.000 eurokoa baitu (2009/2010 ikasturtea). Kontzejuetako festek, Avance Ezkabarte K.E.-k eta Amalur Haur Eskolak 14.000, 5.833 eta 5.000 euro jaso dute hurrenez hurren.

Festetarako diru-laguntza 14.000 € izanen da

Kopuru politikak egokitu zaizkie, halaber, Arreko San Román Erretirodunen Elkarteari eta San Román Gizarte Etxeari, 3.000 eta 5.000 euro bitarteko kantitateak hain zuzen. Xumeagoak dira Arre eta Makirriaingo Olentzerok, Ezkabarte Abesbatzak, Lankidetzarako

Diru sarrerek guztira... 1.387.000€



Gastuak guztira... 1.387.000€

Funtsak, Korrikak eta Atarrabiako Erretiro-tuen Etxeak jaso dituzten diru-laguntzak, 1.000 euro inguruak.

Azkenik, Avanceko Futbol Eskolak, Ezkabarte Areto-futbol taldeak, Ibaialde Institutuak eta Behartsuen Senidetxoek 700 eta 250 euro bitarteko jaso dute beren jarduerak gauzatzeko. Zehazki, areto futbolak kiroldegiko pistaren alokairuaren kostearengatik egokitu zaio hobari hori eta Ibaialde BHLaren kasuan dirulaguntza, 390 eurokoa, matrikulaturiko ikasleen kopuruaren arabera da.

TALLERES ITURRALDE

Neumáticos
Mecánica general
Carrocerías
Limpiezas
Mantenimiento
Transformaciones
Restauraciones

**Pol. Ind. Ezcabarte, C/L - N 23 (Arre)
948 36 15 36 - 650 339 612**



Isabel Pérez onuradunetako bat da. / Jesús Chueca.

Horrez gain, trafiko seinaleen eta uhin bikoitza, zeinek oinezkoen segurtasuna handitzen baitu, lekualdatzearen ardura du.

“Ongi egindakoa ongi da”, argitu du Isabel Pérezek, herriko bizilagun eta pasealeku horretako ohikoak: “Nik maiz erabiltzen dut eta oso pozik nago, hola askoz seguruagoa da”.

Guztira 50.000 euro baino gehiagoko aurrekontua, egun José Maríaren, Isabelen eta beste anitzen onurarako, jada Arre eta Atarrabiaren artean arriskurik gabe pasea baitaitezke.



56.000 € inbertitu da pasealekuko segurtasuna handitzeko. / Jesús Chueca.

4

EZKABARTEMUGIMENDUAN

Felipek jada lagun bat ekarri du berarekin

Felipe Lozano eta Lucy Acuña Ezkabarteko Kiroldegiaren bi erabiltzaile berri dira. Orain dela hilabetetik hona, biek ateratzen diote onura “Ekarri lagun bat” kanpainari, zein Udaleko Kirol Zinegotzigoak instalazioak biztanleek erabiltzea sustatzeko abiatu baitu. Felipe Lozanok orain dela bi hilabete izan zuen ekimenaren berri eta jada gozatzen ari da kiroldegiko instalazioetako pare batez, gimnasioaz eta saunaz. Horrez gain, hari esker, bere lagun Lucy Acuña ere goza dezake instalazioez %25eko deskontuaz.

Iván Arbeloa kiroldegiko instalazioak entrenatu eta sasoiaren egoteko aprobetxatzen dituzten ibarreko bizilagunetako beste bat da. Udalaren iniziatibaren berri izan duela, Arbeloa lagun bat gimnasioan entrenatzeko konbentzitzea pentsatzen ari da: “Ekimen ona iruditzen zait”. Ekainaren 30a arte egiten ahalko du.

Felipek, Ivánek eta Lucyk jada ateratzen diete onura Ezkabarte ibarreko Kiroldegiak eskainiriko instalazio eta jardueri. Eta zuk, ekarriko duzu lagun bat?.

Felipe Lozano. / Jesús Chueca.



Arre izanen da lehena festa ibilbidean maiatzaren 28an

ARREKO FESTAK maiatzaren 28 ostiraletik maiatzaren 31 astelehenera bitartean
ZILDOTZEKO FESTAK maiatzaren 28 ostiraletik maiatzaren 31 igandera bitartean
IBARREKO FESTAK ekainaren 26 ostiraletan eta 27an
ORIKAIINGO FESTAK uztailaren 23, 24 eta 25ean
AZOZKO FESTAK abuztuaren 6, 7 eta 8an
EUSAKO FESTAK abuztuaren 28 larunbatean eta 29 igandean
SORAURENGO FESTAK irailaren 3, 4, 5 eta 6an
ORRIOKO FESTAK irailaren 24, 25 eta 26an
MAKIRRIAIINGO FESTAK azaroaren 12, 13 eta 14an
EZKABAKO FESTAK urriaren 12an
ANOZKO FESTAK irailaren 19an
ADERIZKO FESTAK irailaren 25ean
GARRUESKO FESTAK abenduaren 8an

Uda sudur gorri

Fernando Fernán Gómezek argi zuen bizikletak udarako direla. Aurten ibarreko haurrek zirkua munduarekin erlazioaturiko jarduerak, josteta eta eskulanez ere gozatzen ahalko dute. Horren berri izan nahi duten gurasoek maiatzaren 19an egiten ahalko dute, 18.30ean, Ezkabarteko Udal Kiroldegian. Han zehaztuko dituzte prezioak, baina jada jakinaraz daiteke familia bakoitzak hiru izen-emate biren prezioan egiten ahalko duela. Udalekuak abuztuaren 2tik 13ra bitartean egiten dira, goizeko 8,30etik eguerdiko 14.00etara.

Bestalde, neguko pilates eta spinning jarduerak ekainean zehar luzatuko dira (joaten den jende kopurua horretarako aski bada). Jada entrenatzen hasi nahi baduzu, hilabete horretarako izen-ematea maiatzaren 3an hasi eta hil beraren 14an bukatuko da. Izen-ematea luzatzeko prezioa erroldatuentzat 15 eurokoa eta erroldatu gabeentzat 25 eurokoa da.